



## ZERGATIK DIRA ELBIAK AMEZKETAKOAK?

Elbia edo eulia da euren ezizena; dirudienez, XVIII. mendetik aurrera hasi ziren horrela deitzen 6

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Asteazkena  
2008-07-16**

VIURTEA 1.487.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)

# Garagarraren zukua aukeran

**VILLABONA** Igandera arte zabalik egongo da, Irrintzi elkarteak antolatuta, XXII. Garagardo Azoka

**ESKAINITZA** 22 garagardo mota desberdin dastatzeko aukera izango da, 18:00etatik 01:00etara bitarte 4



Irrintzi elkarteko kideak egon dira Garagardo Azoka prestatzen. I. GARCIA



Dultzaineroak doinuak zabalduz eta atzean buruhandiak eta erraldoiak, atzo, Alegiako plazan. N. URBIZU

## TXINTXARRIAK HASI DIRA DANTZAN

**ALEGIA** Anttonita Iriarte izan zen suziria piztearen arduraduna; igandera arte askotariko ekitaldiak izango dituzte herritarrek 5

## Etxebizitzak egingo dituzte Korazonistetan

**TOLOSA** 43 etxebizitza izango ditu eraikinak; erabilera publikorako lokalak ere izango dira 2

**'Noche de guerra  
en el Museo  
del Prado'  
antzeziana,  
etzi Leidorren**

**TOLOSA** La Barraca taldeak eskainiko du; doan izango da, 20:30etik aurrera 3

## 'Gozamenez' festa, antolatu dute etzirako, igerilekuan

**LEITZA** 22:00etatik 00:30era izango da; larunbatean, berriz, ur festa, 16:00etan hasita 7

# Korazonisten eremuan etxebizitzak eraikiko dituzte

**Azpiegiturak** » Beheko solairua eta lehenengoaren zati bat erabilera publikorako lokalentzat egokituko dituzte.

## ERREDAKZIOA

Korazonisten elizaren eta inguruko lursailaren jabea den Oriamena sustatzaileak eta Tolosako Udalak hitzarmena sinatu berri dute eliza zaharraren etorkizuna zein izango den argituz. Gaur egun Iturritxiki plazan kokaturiko Korazonisten eliza dagoen lekuan etxebizitzak eraikiko dituzte, eta Udalaren eskura egongo diren hainbat lokal ere izango ditu.

1.073 m<sup>2</sup> dira denera Korazonisten eliza eta lursaila hartzen dituen gunea. Bertan, eliza zaharra bota ostean, eraikin berria altxako dute, 43 etxebizitza aurreikusten dituztelarik. Onartu duten hitzarmenaren arabera, eraikinaren beheko solairua eta lehenengo solairuaren zati bat izango da Tolosako Udalarantz, guztira, 740 m<sup>2</sup>. Erabilera publikorako lokalak egiteko izango dazati hori, eta Oriamena sustatzaileak lokalak funtzio hori bete zeko erabat egokiturik utzi behar ko ditu.

Adostu bezala, sustatzaileak lokal horiek egokitzearen gastua hartuko du bere gain, beti ere, 300



Korazonisten elizak egun duen itxura. N. LATABURU

m<sup>2</sup>-ko lursaila egokitzearen zentabetea gain dugu. 740 m<sup>2</sup> egokitzea 222.000 euroko balioa izango luke.

Bestalde, Udaltzaren onarturiko hitzarmen hau datorren abenduan onartzeko asmoa dagoen Tolosako Hiriko Ordenazioko Plan

Orokorren baitan sartuta gertatuko da.

## Hainbat proposamen

Korazonistetan hotela jartzearen ideia zabaldua zegoen, baina indar handiena zuena bertan konfiteri museo bat eraikitzea zen.

# «Hainbat beharrei erantzungo diegu proiektu honekin»

**JOKIN AZKUE** Hirigintza zinegotzia

## INIGO TERRADILLOS

Jokin Azkue Tolosako Udaleko hirigintza zinegotziak azaldu ditu proiektu honen nondik norakoak.

**Azkuean, hainbeste ideien ostean, etxebizitzak eraikiko dituzte Korazonistak elizaren eremuan.**

Inguru hori zertarako bideratu eztabaida sortu da, baina azkenean akordioa sinatu dugu, eta horri esker hainbat beharrei erantzun ahalko diegu. Batetik, ia ikusten ez bada ere, elizaren atzealdean 8 etxebizitza daude; horien egoera ez da oso ona, eta baldintza hobetarako etxebizitzetara pasa behar dira hor bizi direnak. Bestetik, herriak leku falta du behar dituen beharrei erantzuteko, eta eraikiko den eraikinaren beheko solairua eta lehenengoaren zati bat horretarako izango da, ekipamendurako, 700-800 m<sup>2</sup>. Bestalde, inguru hori guztia zaharberritzea lortuko dugu proiektu honekin: Inpermu kalea zabalduko dugu Berlateraino, 7 metroko pasabide batekin; Apeaderora joateko Rondilla kaletik egun dagoen bezala, estua eta iluna da, eta hori zabaldu egingo dugu 2 metro. Beraz, hainbat alor hartzen ditu proiektu honek.

**Edonork esan lezake, etxebizitza**



ESTI EZBEZA

**tzak eraikitzearena gaur egun ez dela ideia oso ona.**

Egia da egun nahiko geldirik dagoela dena. Dena dela, hitzarmenarekin konpromisoa hartu dugu egoera ona ala txarra izan eraikitzen hasi behar denean hasi egin behar dela, itxaroten egon ordez.

**Elizak ez al du baliorik?**

Ez dago babestuta, ez baitu baliorik, berria baita.

**Bertan konfiteri museoa eraikitzeo ideia zegoen zabalduena?**

Bai, baina ez zen leku egokia, solairu desberdinetan banatu behar zelako, leku zabalagoa behar zen... Beste leku batzuk aztertu behar dira horretarako.

## L Laburrak

### Egiaztatze azterketen emaitzak Aitzolen ikusgai

**EUSKARA** • Aitzol Udal Euskaltegia 1, 2 eta 3. mailako egiaztatze azterketa egin duten ikasleen emaitzak Euskaltegi iragarki taulan jarrita daudela jakinarazi dute. Eraikuntza goizez, 08:00etatik 14:00etara, dago irekita, orduan ikus daitezke, beraz.

### Iragarki laburrak

#### SALGAI

■ **Etxebizitza.** Tolosako Alde Zaharrean etxebizitza salgai. Merkea. Obra egin behar da. Interesatek deitu 657 23 00 11 edo 634 91 94 82 telefono zenbakietara.



### Aparteko Osoko Bilkura egingo dute etzi

**UDALA** • Aparteko Osoko Bilkura izango da etzi, 08:00etan Tolosako udaletxean. Udalarik dagoen kreditu aldatetarako espediente onartzea eta Kultura eta Gazteria Departamentuko burua lanpostuaren betebeharen baten aldi baterako aldaketa eta aipatu lanpostua betetzeko erabakia izango dira bilkuran jorratuko dituzten gaiak.

@ **Zurea da hitza.** Eskualdeari buruzko berriak sartzeko aukera duzu gure webgunean. Horretarako, **Zurea da hitza** atalera jo besterik ez duzu egin behar. Bertan iradokizunak, kexak, eskerrak... sartu ahalko dituzu, eta argazkiak ere bai. Horretaz gain, datuak sartzeari komenigarria da harremanetan jarri behar izanez gero. **Zurea da hitza** atalera jo webguneaz gain, telefonoa (943 65 56 95) erabil dezakezu, eta e-maila (tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info) ere bai. Beraz, bide ugari dituzte inguruko berriak ezagutarazteko:

[www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

## S Soka motzean

### «Bederatzi urtez egon nintzen Ingalaterran bizitzen»

#### EDURNE MARKIEGI

Amona

#### ESTI EZBEZA

Bere ilobarekin paseoa zebilela harrapatu dugu Edurne Markiegi (Tolosa, 1931).

**Zein asmo duzu opor egunetarako?**

Herria geratuko naiz.

**Kanpora ateratzeko asmorik ez duzu orduan?**

Ez, nahiago dut bertan geratu. Gainera, alabaren katua zaintzen ere geratu behar dut. Bizitzan zehar nahikoa atera izan naiz atzerrira, izan ere, bederatzi urtez Ingalaterran egon nintzen bizitzen. 1958. urtean izan zen, eta lan kontuengatik joan nintzen hara.

**Eta herria txango berezirik egiten al duzu?**

Mendirra joatea gustatzen zait eguradi ona egiten duenean, Larraitz aldera edo.

**Eta hondartzara?**

Hondartzara ere joaten naiz, Hendaiara normalean, baina nahiago dut mendira joatea. Ilobari, esaterako, gehiago gustatzen zaiu hondartzara.

**Uda ala negua?**

Biak.

**Zer egingo zenuke loterian irabaziko bazenu?**

Nik ez dut niretzat behar, beraz, alabari ikasketak ordaintzeko erabiliko nuke. Oso harro nago nire alabez.



N. URBIZU



Murtziako Unibertsitateko La Barraca izeneko antzerki taldeak eskainitako emanaldietako baten irudiak dira goian ikusi daitezkeenak. *Noche de guerra en el Museo del Prado* izena du etzi Leidorren eskainiko duten Rafael Albertiren lanak. HITZA

## Rafael Albertiren obra taularatuko dute etzi iluntzean, La Barracakoek

**Kultura** » 'Noche de guerra en el Museo del Prado' antzerkia aurkeztuko dute Murtziako Unibertsitateko kideek Leidor antzokian.

### ESTI EZEIZA

Murtziako Unibertsitateko La Barraca antzerki taldeak Rafael Albertiren antzezlana bat taularatuko du etzi iluntzean, Leidor antzokian. Honenbestez, *Noche de guerra en el museo del Prado* lana ikusgai izango da 20:30etik aurrera. Gainera, sarrera doan izango da bertaraten diren guztientzat. La Barraca antzerki taldeak, Euskal Herrian bi emanaldi eskainiko ditu. Bata, bihar, Irunen, eta hurrengoan, lehen aipatu bezala, Tolosan.

Manolo Ortinen zuzendaritzapean, 14 aktorek hartuko dute parte antzezlanean. Rafael Albertik, lan honetan, drama pertsonai gisa, Gerra Zibileko garaia gogoratzen ditu, non beste lagun batzuekin batera, Pradoko museoa salbatu zuten hegazkineria frankistatik. Horretarako, asmakari bat prestatu zuen, eta bertan, hainbat kuadro, inbasioaren aurka matxinatzen dira. Batez ere, Goyaren maiatzaren 3ko fusilamenduak. Artelan hauetan ikus daiteke nola Madrilgo herria Frantziako ejerzitoaren aurrean defendatu zen. Izan ere, hauek Espainian sartu ziren zigorgabetasun osoz. Ticiano, Velaz-

quez eta Fra Angelicoren beste pertsonai batzuk, beraien indarrak batzen dituzte, erasotzaile horien nahiz besteen aurrean.

### Antzezlaren inguruak

*Noche de guerra en el Museo del Prado* (1956), erretablo poetiko piktorialeko honek argumentu arina du. Kuadroetako pertsonaien matxinada kontatzen du, eta hauetan Goyarenak nabarmentzen dira. Hauek Independentziaren Gerran, Napoleonen aldeko ejerzitoekin borrokatzen dira. Hone-tarako, atmosfera aberatsa sortzen du, plastika eta soinua elkarrekin batuz.

Garai horretako espainiar drama modernoenetakoa proposatzen du gisa honetan. Gerra ondoren zabaldu zen ohitura naturalistari kontrajartzen dio egileak darabilen orijinaltasunak.

### Murtziako antzerki taldea

Murtziako Unibertsitatean duela 50 urte inguru hasi ziren antzerki ekitaldiak prestatzen. Hala, Unibertsitate munduko antzerki talde gisa, garaiko antzerki independentean, erabakiorra izan zen berak egindako lana. Baita, irakaskuntza akademikoko lehen ekin-tzaren sorreran ere. La Barraca izenarekin bataiatu zuten talde hau.

1980. hamarkadan antzerki ikasgelarantz jo zuen antzerki talde honek, non irakasleak eta ikasleak muntaiak eta formazio ikasta-

### » ZENBAIT DATU

- **Obrenaren izenburua.** *Noche de guerra en el Museo del Prado*.
- **Egilea.** Rafael Alberti.
- **Konpainia.** Murtziako Unibertsitateko La Barraca antzerki taldea.
- **Tokia.** Leidor antzokia.
- **Eguna.** Uztailak 18, ostirala.
- **Ordua.** 20:30ean.
- **Antzezleak.** Paco Navarrete, Dani Sanchez, David Terol, Maria

roetan batu ziren. Espainiako Antzerki Unibertsitarioko (TEU) kide ohiak elkartzeko balio izan zuten.

### Egilearen datu batzuk

Rafael Alberti (1902-1999) irudimena lantzen zen antzerkian egin zituen hastapenak, 30. hamarka-

### Etzi Leidor antzokian ikusgai izango den obrarako sarrerak doakoak izango dira

### Gerra Zibileko garaia gogoratu nahi izan ditu Rafael Albertik antzezlana honetan

### Pradoko Museoko artelanak nola matxinatzen diren kontatzen du obran

- Angeles Rodriguez, Jesus Rodenas, Jose Maria Soria, Daniel Alvaro Caravaca, Jose Andres Martinez, Mapi Roncero, Ana Yelo, Julia Andreu, Jesus Maria Arribas, Manolo Ortin, eta Jose Ramon de Moya.
- **Zuzendaria.** Manolo Ortin.
- **Koreografia.** Margarita Muñoz.
- **ekoizpena.** Inmaculada Abenza eta Carmen Veas.

dako antzerkiari itzuli bat emanez. Bere lehen dabiliko antzerki obra *El hombre deshabilitado* izan zen. Hau 1930. urtean idatzi zuen Albertik. Obra honetan, obsesio simbolistaz gain, Calderon de la Barca-aren eragina ere nabarmendu zitekeen.

Buenos Airesen (Argentina) errefuxiatuta zegoen garaian idatzi zuen etzi ikusgai izango den obra. Garai berean burutu zituen ere: *El trebol florido*, *El adefesio*, *La gallarda*, eta *La lozana andaluza-rena* egokitzapena.

Esan daiteke Albertiren antzerkiak 27. belaunaldiko berrikuntza poetikoa indartu zituela. Bere antzezlana ez dira ohiko eszenatikian ikusi, baina beti jo da espainiar antzerkiaren alorrean, irudimen ekarpen handienak egin dituenetako bat bezala; gune bat dute bertan, lan eszenikorako, ikasle gazteen antzerki hastapen-tarako... Hau guztia Isidoro Maiz-quez aretoari esker.

## L Laburrak

### Patata tortilla lehiaketan ariko direnizat, oharra

**ALEGIA** » Karmen festen baitan, etzi 18:00etan, jubilatuen patata-tortilla lehiaketa egingo dute plazan. Zazpi lagunek hartuko dute parte, baina festa batzordeak zera adierazi nahi izan du, parte-hartzaileek mesedez eraman dezatela sua etxetik, «justu ibiliko baikara sukaldeekin». Aldez, aurretik, esker-erak eman nahi dizkiete lehiakideei.

### Harizpek txangoa antolatu du Laredoko Lore Festara

**TOLOSA** » Harize jubilatua eta pentsiadunen elkarteak bidaia antolatu du abuztuaren 29rako, Laredora. Egun bateko txangoa izango da, eta 08:00etan abiatuko dira Tolosako San Frantzisko elizaren aurrealdetik. Hemendik Santurtzira bideratuko dira, eta han geraldia egingo dute. Segidan, Laredora joango dira. Han lore festa ospatzen da egun horretan, eta lehen dabiliko azoka ikusiko dute. Gero kalejiran ibiliko dira Urdiña Txikiko txaranga-ekin. Jarrera, Barlovento jate-txean bazkalduko dute. Bidaiaren prezioa 30 eurokoa da bazkideentzat, eta gainontzekoentzat, 33.

## T Telefonoak

### Larrialdiak. ((112))

<b>OSASUNA.</b>
<b>Alegialdea.</b> Osasun z.: 943 653212
<b>Anoeta-Alkiza-Hernialde.</b>
Medikua: 943 65 23 39
<b>Asteasu.</b> Medikua: 943 692423
<b>Baliarrain.</b> Medikua: 943 889003
<b>Berastegi-Elduain.</b>
Medikua: 943 683361
<b>Bidegoian.</b> Medikua: 943 681134
<b>Orendain.</b> Osasun etxea: 943 672411
<b>Ikaztegieta.</b> Medikua: 943 653329
<b>Irura.</b> Osasun zentroa: 943 690720
<b>Leitza.</b> Osasun z.: 948 510800
<b>Orendain.</b> Medikua: 943 655595
<b>Orexa.</b> Medikua: 943 682228
<b>Tolosa.</b>
<b>Anbulatorioa, larrialdia:</b> 943 461111
<b>San Esteban:</b> 943 006800
<b>Germikako arbola:</b> 943 006900
<b>Amarozko dispen:</b> 943 672637
<b>Asuncion klinika:</b> 943 675799 - 943 67 53 90 (larrialdiak)
<b>DYA:</b> 943 672536
<b>Gurutze Gorria:</b> 943 674888
<b>Villabona.</b> Anbulat.: 943 006970
<b>Zizurkil.</b> Aiztondo zerb.: 943 693930
<b>GARRAIOAK.</b>
<b>Renfe:</b> 902 24 02 02
<b>Donostiako autobusa:</b> 943 361740
<b>Tolosalde bus:</b> 943 650621
<b>Leitzaran autob.</b> : 948 221015
<b>Taxia:</b> 943 670420
<b>Taxia (Leitza):</b> 608 873016
<b>BESTERIK.</b>
<b>Ertzaintza:</b> 943 538820
<b>Tolosa-Udalatzangoa:</b> 943 675858
<b>Tolargi:</b> 943 650016
<b>Iurramendi egoitza:</b> 943 670325
<b>Tolosa gasa:</b> 943 675320

# Irrintzi elkartearen hamabigarren Garagardo Azoka, bihartik hasita

**Villabona** » Igandera arte iraungo du eta egunero 18:00etatik 01:00etara irekiko dute; 22 garagardo izango dira aukeran.

## IMANOL GARCIA

Hamabigarren urtez antolatu du Villabonako Irrintzi elkarteak Garagardo Azoka Txerminen. Bihar hasiko da eta ohi bezala lau egun iraungo ditu, igandera arte beraz. 18:00etan irekiko dituzte ateak eta 01:00ak aldera itxi. Agustín Laskurain azokaren koordinatzaileak adierazi duenez, «iazko zenbakietan mantentzea da helburua».

Izan ere, 2007ko azokan zerbaite gehiago handitu ziren kopuruak. 11.000 litro garagardo edan ziren, 2.800 ukondo jan, saltxitxak amaitu egin ziren, 100 kilo haragi pastel jan ziren eta beste 110 kilo gaztarenak, 100 kilo patata ere, 4.000 pitxar saldu... Kalkulu zehatz bat egin zaila bada ere, 6.000 lagun inguru izan ziren. Villabonako Garagardo Azokak tradizio handia du dagoeneko. Intxaurrendokoa ondoen, egun Gipuzkoako bigarren beteranoena da, Bera Bera errugbi taldekoek dagoeneko ez dutelako antolatzen.

Aurten berritasun batzuk izango dira. Esaterako, Aimar Irigoien harri-jasotzaileak erakustaldia egingo du larunbatean Txistulari plazan. 19:00ak aldera izango da hori. Ostiralean, herriko Lain taldeak kontzertua emango du Azokan bertan, 23:00ak aldera.

## Ukondoaren fama

Aurten ere prezioak mantendu egin dituzte Irrintziokoen Garagardo guztiak hiru euro balioko dituzte bai pitxarrean, bai botilan. 22 aukera izango dira, horietatik lau botilan: Paga markako hiruak eta Judas.

Aurten zenbait aldaketa izango dira garagardoetan. Laskurainek dioenez, «harrera ona izango du Affligem abadiako garagardoak». Beste urtetan gehien edaten diren garagardoak, abadiakoak hauek ere, Grimbergen Dubbel eta Grimbergen Blond dira. Janariari dagokionez, betiko saltxitxex gain, fama handia du ukondoak, Irrintziokoen esaten dutenez.

Garagardo azokak asko egiten dira eskualdean garai honetan. Laskurainek ustez, horrelako ekitaldiek arrakasta izateko arrazoia normalean edaten ez diren garagardo mota edaten direla da eta baita zerbitzatzen diren modua ere: «Kañeroak ondo prestatu izaten ditugu eta bere puntuatzen ater-



Iazko Garagardo Azokan, Irrintziokoen saltxitxak prestatzen. I. GARCIA

## » MENUA

### Jatekoak

- Saltxitxak: Frankfurt eta Bratwurst.
- Haragi pastela.
- Gulak.
- Entsalada alemaniarra.
- Patatak 'Navarrito' erara.
- Ukondoa.

### Postrea

- Idiazabalgo gazta tarta.
- Sagardo tarta.
- Alustizako gazta.
- Txokolate eta kafe tarta.

### Garagardoak

- Grimbergen Dubbel.
- Grimbergen Blond.
- Grimbergen Cuvee de L'Ermitage.

zten da garagardoak, temperatura egokian. Jendeak erraz edaten du garagardoak eta nire ustez gero eta ere gehiago gustatzen zaio».

Lau egunetako azoka antolatzen lan ugari egin behar izaten dute Irrintziokoen. Egun hauetako presaketaz gain, azokaren egun bakoitzean 100 lagun inguru aritzen dira lanean. Bestalde, antolatzaileek asko eskertzen diete laguntzaile dieten udalei eta enpresei. «Villabonako eta Tolosako Udalak materiala uzten dituzte eta bertako udal langileek asko laguntzen dituzte. Sarasola eta Zabala sagardotegiek ere uzten dituzte materiala

- Mort Subite.
- Kronenburg.
- Judas.
- Paga Orhi.
- Paga Gorri.
- Paga Zumbeltz.
- Foster's.
- San Miguel.
- San Miguel Selecta.
- San Miguel 0,0%.
- San Miguel 1516.
- New Castle Brown Ale.
- Paulaner.
- Paulaner (gariarekin egindakoa).
- Paulaner Salvator.
- Murphy's.
- Guinness.
- Judas.
- Affligem.

eta Jaguar enpresak leku bat uzten digu urtean zehar gure gauzak gordetzeko».

Garagardo Azokatik ateratzen duten dirua elkarteak martxan jartzen dituen egitasmoetarako erabiltzen da. Esaterako, datorren urtean txirindularitza eskola berri martxan jartzekoasmoa dute. Bestalde, urtero bezala, elikagaien azoka eta isats lehiketa antolatuko dute. Aurten, irailaren 13an izango da. Horregatik, Irrintziokoen gonbitea luzaten diete garagardoak gustuko duten guztiak ostegunetik igandera bitartean azokatik pasatzeko.

# Gizonezko bat atxilotu dute, bikotekidea jo eta mehatxatzeaz akusatuta

**Villabona** » Emakumeari eta bi seme-alabei irainak egitea egotzi diote atzo Ertzaintzak atxilotutako 23 urteko gizonezkoari.

## ERREDAKZIOA

Ertzaintzak 23 urteko gizonezko bat atxilotu zuen atzo Villabonan, herenegun gauean bere bikotekidea, emakumezkoa, jotzeaz eta hari mehatxuak eta irainak egiteaz akusatuta.

Bizilagun batek deitu zion polizia, herenegun gaueko 23:00ak al-

dera. Ustez eraso gertatu zen etxebizitzara iritsitakoan, emakumeak esan zien bere bikotekideak bien seme-alabei irain egin zuela, zarata ateratzen ari zirelako. Irainen ondoren eztabaida piztu zen bi helduen artean, eta berehala besoan ukabildaka eman zion gizonezkoak, emakumearen bertsioaren arabera, eta horrez gain iraindu eta mehatxatu egin zuela.

Polizia iturriek diotenez, gizonezkoak hainbat kalte eragin zituen etxeko sukaldetan, eta emakumeari eskuko telefonoa indarrez kendu zion, hau SOS-Deiakera deitzeko zela.



## Kilometroak 2008 Tourmaleten

**IRURA** » Kilometroak 2008 urrutira iritsi da oraingoan. Igandean Tourmaletoko gainean postu bat jarri zuten, Kilometroetako materiala saltzeko. Esaitik urtero antolatzen duen festaren baitan jarri zuten postua. Eguraldiak ez zuen lagundu, behe lainoa handia baitzen, baina antolatzaileen arabera, «esperientziak merezi izan zuen». HITZA



## Ur parketik herri kiroletara

**ANOETA** » Uztailean zehar Udalak LHI eta LH6 maila bitarteko umeentzako ekintzak antolatu ditu ostegunero. Aurreko ostegunean Herrikiroletara joan ziren, argazkian ikusten den bezala, eta «giro bikaina» izan zuten. Bihar, herri kirolak antolatuko dituzte plazan 10:00etatik 13:00etara. Ez da beharrezkoa izena ematea. Bertara agertzea nahikoa da. HITZA



Txintxarriaren udaletxerainoko bidea herritar guztiak begiekin egiten dute urtero. Igandera arte egongo da zintzilik, ikurriñarekin batera. N. URBIZU



Anttonita Iriarte, festa bikainak pasatzeko herritarrei esaten. N.U.



Euskal presoaren aldeko elkarretaratzea egin zuten. N.U.



Haurrek eskolan jaiet buruzko marrazkiak egin zituzten. N.U.

# Txintxarrien erritmora hasi dira jaiak

**Alegia** » Anttonita Iriartek piztu zuen ziria txupinazoa botatzeko. Gaur egun osoan zehar eta igandera arte gozatuko dute alegiarrek.

## NEREA URBIZU

Karmen jaiak hasiak dira; Anttonita Iriartek urterobotakobalu bezala bota zuen txupinazoa atzo, eta baita aurtengo festak iragarri ere. Festen iragarpenaren aurretik erraldoiak, buruhandiak eta dul-

tzainariak aritu ziren herrian. Gero, euskal presoak ere gogoratu zituzten elkarretaratzearen bidez.

Ondoren, bertso paper lehiaketako hiru irabazleek, eskolako jaian bezala, bertsoak kantatu zituzten herritarren aurrean. Jaieta-

ko egitarauko marrazki irabazleak ere han agertu ziren: Iñigo Ormazabal, Josu Loidi eta Jokin Tolosa (Amaia Garaialde faltatu zen).

Anttonita Iriartek festak bakean eta gustura pasatzeko adierazi zien herritarrei, eta eguraldi ona ere eskatu zuen. Goxokiak ere banatu zituzten herritarren artean.

Txintxarria udaletxeko balkoian dago orain zintzilik, datoren igandera arte, festak bukatu arte.

## » GAURKO EGITARAUAK

### Egitarau ofiziala

- **09:00.** Diana.
- **09:30.** Giroarte dultzaina taldearekin diana.
- **11:15.** Meza nagusia.
- **12:30.** Herriko dantzariak plazan.
- **12:30.** Incansables txaranga kalez kale.
- **16:30.** Zazpie pasa txapelketako finalak Elorri pilotalekuan.

- **17:30.** Konpartsa herrikoia herriko plazan.
- **22:30.** Konpartsa herrikoia emanaldia plazan.

### Egitarau alternatiboa

- **19:00.** Txupinazoa, suziriarekin sagardo probaketa.
- **Ondoren.** Zahagiardoa.
- **Gauean.** Trikitixa Laket taldearekin.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Amezketarren ezizena euliena, elbiena da. Joxe Mari Otermin amezketarrak egindako liburuetan azaltzen den moduan, baliteke XVIII. mendetik aurrera jada, ezizen hau amezketarrei egokitzea.

## Elbien jatorria zein ote da?

NEREA URBIZU

**E**lbiak, euliak omen dira Amezketakoak. Hori da herritarrek duten goitizena: hasieran goitzen hauek zirikatze erabiltzen baziren ere (batzuetan min egiteko), gaur egun umore punttuarekin erabiltzen dira Baina nahigabe bada ere, jatorrian ondo zertan duen jakin nahi izaten dugu, ezizenek, nolabaiteko egiazko sekretutxoak, egia modukoak gordetzen baititu bere baitan.

Joxe Mari Otermin amezketarrak egindako herriari buruzko bigarren liburuan (*Amezketak, largo y tortuoso camino*) dokumentazio asko aurki daiteke honen inguruan ere. Tartean hau kontatzen da: 1831ko uztailan, amezketarren eta albizurtarren arteko pilota partidak jokatu zituzten Lizartzan (aurretik Amezketan jokatu zuten hauek, herritarrek irabazleak izanik). Giro ona izan zen denen artean Lizartzan, baina Albizurko *Zulozar* zeritzana amezketarrek zertxobait sartu zen, euliak zirela esanez. Honekin «probokazioa eta ziriketa bilatzen ari zen Albizurko eskalea».

1950ean, berriz ere pilota partidak zeuden frontoian eta jendez lepo zegoen Amezketan. Zaldibiko pilotariak zeuden bertan Amezketako kontra aritzeko. Frontoian Zaldibiko gazte batzuketarri omen ziren garai hartako euli-harrapatzaile tira luze horietako batzuekin. Noski, hemen ere, zirikatze erabili zituzten goitizena, eta amezketarrei iseka egiteko asmoarekin.

Handik gutxira, amezketarrak, argi eta azti oraingoan ere, intsektizida batekin azaldu ziren, «Zaldibiko arkakusoekin bukatzeko». Norgehiagoka gogorra, bai pilotan eta baita kantxatik kanpo ere. Bai-

na ez zen lehiakortasun hau pilotan bakarrik ematen, bertsolari-tzan ere bai.

### Herri gehienek ezizena dute

Orain urte gutxi arte herri gehienek izengoitia zuten, herritarrek mindu, zirikatu nahi izaten zenean, eta oso erabilia zen ezizena. Euliak goitzenarekin amezketarrek pisutsuak, aspergarriak eta nekagarriak zirela adierazi nahiko zen. Gaur egun ez du horrekin zerikusirik inolaz ere, eta litekeena da, Joxe Mari Oterminen dioen moduan, ezizena «urte gutxian erlikia bat gehiago izatea, aspal-dian erabiltzen zena izatea, beste-rikez».

### Ezizena noiztik, ezin jakin

Ez da erraza jakitea noiztik deitzen zaien euli-elbi amezketarrei, baina ematen duenez, «seguraski, XVIII. mendean dagoeneko bai».

### Zaldibiarrek euli-harrapatzaile tira batekin sartu ziren herrien arteko pilota partida batean

Hona, 1908. urtean *Euskal Etnologia* aldizkarian topatutakoa: Pernando Amezketarra alkatearengana joan zen euli asko zebilela eta. Pernandok hala esan zion alkateari: «Ez al duzu ezer egin behar euli hauen kontra?». Alkateak orduan erantzun: «Hori bakoitzak egin behar du, bakoitzak». «Beraz», erantzun zion Pernandok, «bakoitzak horretarako eskubidea dauka?». «Bai, noski. Lehenengo ikusten duzun bezain pronto, zas, eta makilaz-edo hil egin ezazu».

Halako batean, euli bat jarri omen zen alkatearen buruan eta Pernandok ez zuen aukerarik galdu: eman egin zion, eta geroztik al-



Amezketakoan kontra zaldibiarrek aritu ziren 1950ean, eta egun hartako euli eta arkakusoen arteko bromak ezagunak egin ziren. A. IMAZ

kateak ez zion beste inori halako gomendiorik eman.

Dirudienek, Pernando Amezketarrak euliekin lotutako pasarte asko dauzka, baita Alegiako txin-txarriekin lotutakoak ere. Hona horietakobat, Antonio Zavalak bildu bezala: «Elbi urte handi batean, alegitarrek pentsatu zuten Amezketara karta bat egitea, esanez amezketarren *artalde*a besteren terrenuan ibiltzeak etzuela ondo ematen, ta mesede egiteko *ardiak* bildu ta beren barrutira erretiratzek».

Amezketarrek ez zuten jakin zer erantzun, Pernandorekin hitz egin arte: «Hori erraza da: esaeizue aurrena *artalde* hortako ardi bakoitzari zintzarri bana jartzeko lepotik zintzilik, eta ekarriko ditugula geure herrira». Amezketarrek hala erantzun zieten alegiarrei.

### «San Bartolometik aurrera elbi gutxiago»

Amezketarren sinesmenen artean, honako kontua dago: San Bartolome egunera arte, horma bertikaletan geldirik dauden euliak gora begira daudela, eta San Barto-

lome egunetik aurrera (abuztuak 24, herriko festak direnean) buruz behera, edo burua lurra aldera. Sinesmen hau Gipuzkoa osoan dago hedatua, «baina jatorria baliteke Amezketan izatea». Amezketarrek elbiak dira, eta Amezketak, berriz, euli-herri. Amezketarrek, San Bartolome egunetik aurrera, euli gutxiago dabilela diote. Euliek, edo, Amezketarrek badiote, hala izango...



Pernando Amezketarrak pasarte asko ditu euliekin lotuta. N. U.

### » EULIARI BURUZKO DATU BATZUK

■ **Begiak.** Intsektuen artean konplexuenetakoak dira, oso bista ona dute euliek. Ez dute betazalik: horregatik batzuetan hankekin begiak azkatzen dituzte, garbiak mantentzeko.

■ **Iletxoak.** Gorputza babesten dute iletxoek eta usaindu, sentitu eta zaporea har dezakete. Euliek zapaltzen dutenaren zaporea antzematen dute.

■ **Garbiketa.** Eulia oneoro garbitzen da.

■ **Ibiltzerakoan.** Azalera biguinetatik ibil daiteke, oinak biguinak eta itsasorrek dituelako. Horregatik ibil daiteke hormatan.

■ **Funtzioa.** Euliak garrantzitsuak dira animalia hilen gorpuen desegitean. Beste animalia askoren elikadura dira. Ezin ukatu, euliak astun xamarrek direla ere.

### » INKESTA

**1. Zer sentitzen duzu euli-elbi deitzen dizutenean? Ondo, gaizki hartzen al duzu ezizen hau?**



«Beste herrietan bezala, guk eulien ezizena dugu»

### Lenengo Telletxea

AMEZKETARRA

**1.** Normalean elbi inguruko jendeak deitzen digu, hemengoak behar du. Ez dut gaizki hartzen, inolaz ere, komentarioak entzuten dira, broma kutsuarekin beti. Euli pila dago leku gutzitan eta esaten da: «Hara, zenbat amezketar dabilen!». Betidanik ezagutu dut izengoiti hori, nahiz eta jatorri jakinik ez dagoen. Beste herrietan bezala daukagu, guk euliena.



«Euliak pelmak dira baina harro daramagu izen hau»

### Ainhoa Altuna

AMEZKETARRA

**1.** Ohitura zahar bat da, betidanik ezagutu duguna hemen. Jatorria zein den ez dakit, baina ondo eramaten dut, amezketarrek elbiak gara. Hurbilekoekin erabiltzen dugu, gertuko asuntoa da. Lehen indar gehiago zeukan, orain ez hainbeste. Baina harro erabiltzen dugu, euliak pelmak dira baina harro daramagu izengoiti hau.



«Ez da asmo txarrekin erabiltzen den goitizena»

### Jexus Iñurrita

AMEZKETARRA

**1.** Ez da ezizen txarra edo asmo txarrekin erabiltzen dena. Onartu egiten dugu izengoiti hau eta broma, joku bezala erabiltzen dugu. Umetan pilota partidak zeuden frontoian eta Joxe Mari Oterminen liburuan kontatzen duen Zaldibiko arkakusoen pasarte ere ezagutu nuen. Broma kutsukoa izan zuen horrek, zirikatze, eta barre batzuk egin ziren horrekin.

Tolosaldeko komunikabide batek  
**Kazetaritzan edota Euskal Filologian lizentziatuak**  
edo ikasleak behar dituzte  
**lan poltsa osatzeko.**

Interesatuak deitu **661 67 88 17** telefono zenbakira



Amezketarrei euli esaten zaie, dirudienek XVIII. mendeaz geroztik. HITZA

# Etzi 'Gozamenez' festa ospatuko dute herriko igerilekuan, gauean

**Aisia»** Larunbatean, berriz, Denok Bat guraso elkarteak antolatuta ur festa egingen dute, 16:00etatik aurrera, igerilekuan puzgarriak jarriko dituztelarik.

**NAIARA GARZIA**

Etzi *Gozamenez* festa egingen dute herriko igerilekuan 22:00etatik 00:30 bitarte. Antolatzaileak gizarterzerbitzuak, kiroldegia, gaztetxea eta *Gozamenez* koordinadora (Andraize, Askagintza eta Gazte Kontseilula) dira eta gazteei zuzenduta dago.

Festaren helburu nagusia sexualitatea modu ludiko batean bizitzea da. Honetaz gain, antolatzaileek ere beste helburu batzuk zehaztu dituzte: gazteak sortzekintzetan eta antolaketa inplikatzeko, sexualitatearen alde afektiboa eta prebentzioa landu (sentipenak, errespetoa, erakargarritasuna, babesa), gozamina eta tratua bultzatu eta drogak kontsumitu gabe ongi pasatzeko esperientzia bultzatu. Hori dela eta, gazteek edan ahalko dituzten edariei, joan den urtean bezalaxe, izen bereziak jarriko dizkiete. Honela, *Coca-Cola* Printzipe Urdina izanen da, *Nestea* limoiarekin Erakarpén Fatala, anana zukua Kilikagarría, laranjazko freskagarría Obsesioa, limoizkoa, berriz, *Desira*, ura Maitasun Eza...

Festara joan nahi dutenek euro



Leitzako igerilekuan ospatuko dituzte bi festak, 'Gozamenez' delakoa ostiralean eta puzgarriena, larunbatean. N. GARZIA

bat ordaindu beharko dute eta edari baterosteko txartela emanen zaie trukean.

Festarako igerilekua karteekin apainduko dute eta parte-hartzaileak mozorroto egingen dira, txano, ileorde, lepoko, eta abarrekin. Ondoren ur jolasak egingen dituzte, baloi erraldoiarekin, eta musu lasterketa, ia ordubeteko iraupena izanen dutelarik.

Ur jolasak amaitu eta gero, *Gozamenez* festaren aurkezpena egingen dute, hau da, *Gozamenez* programaren filosofia azalduko dute eta gero txalapartaren soinuarekin, argirik gabe lurtean etzanda

izarrak begiratuko dituzte, norberak desioak eskatzeko tartea ere izanen duelarik.

Ondoren musika eta erakusketak izanen dira, ordu erdiko iraupena izanen dutelarik. Suarekin karioka emanaldia egingen dute musikarik gabe, musuaren abestia dantzatzeko dute eta txalaparta eta kariokekin ere ikuskizunak egingen dituzte, besteak beste.

Amaitzeko, pantaila erraldoi bat jarriko dute eta bertan bideoklipak botako dituzte: Doctor deseo, Ken 7, Gatibu, Aisha... Bertan daudenek ere SMSak bidaltzeko aukera ere izanen dute, iritzia emateko, amets

egiteko edo... ligatzeko. Festa 00:30-01:00ak aldera amaituko da eta ebaluaketa orri bat banatuko dute amaieran, parte-hartzaileek bete dezaten eta *Gozamenez* boligrafoak eskainiko zaizkie.

## **Puzgarriak, larunbatean**

Denok Bat guraso elkarteak antolatuta, ur festa egingen dute larunbat arratsaldean Leitzako igerilekuan, 16:00etatik 18:30era.

Hau ur festa egingen duten bigarren aldía da. Guraso elkartetik azaldu dutenez, «ordura arte guraso elkarteak igeriketa txapelketa bat antolatzen zuen eta pentsatu

genuen txapelketa ez zutela deleneke parte hartzen eta norgehiogoka bat zela gainera. Ume guztiak parte hartzeko beste zerbaít egitea erabaki genuen, zerbaít ezberdina egitea, eta puzgarrietan pentsatu genuen».

Joan den urtean oso eguraldi txarra egin zuen. «Halere kokorrak ibili ziren, txikiak pixka bat busti eta gero joan egin ziren. Ea aurten zorrea izaten dugun».

Puzgarriak Tuteratik ekarriko dituzte. «Igerileku handian 3 jarriko ditugu eta umeentzat koltxone-ta antzekoak jarriko ditugu, eta gero jostailu batzuk». Txikian hain ur gutxi dagoenez, ezin dira puzgarriak jarri, horregatik ekartzen dituzte jostailuak txikientzat.

Joan den urtean zaharrenak 12 edo 13 urtekoak ziren baina irikita dago adin guztientzako jendearentzat. Hau da Denok Bat guraso elkarteak udan antolatzen duen ekitaldi bakarra. «Gero urtean zehar gauza gehiago egingen ditugu, baina udan hau bakarra. Eguraldi ona egingen badu jendea animatuko dela espero dugu, lehenengo urtean ibili zirenak oso gustura gelditu ziren. Eguraldiak lagunduta aurten jende gehiago animatuko dela uste dugu».

Puzgarrietatik ez dutela sarre- ra berezirik kobratuko adierazi dute, igerilekuko ohiko sarreaso- lik.

## **» EDARIAK**

- **Printzipe Urdina.** Coca-Cola.
- **Erakarpén fatala.** Nestea limoiarekin.
- **Obsesioa.** Kas laranja.
- **Desira.** Kas limoia.
- **Maitasun eza.** Ura.
- **Pasioa.** Aquarius laranja.
- **Goxotasuna.** Laranjazko zukua.
- **Retxazoa.** Melokotoizko zukua.
- **Begirada sakona.** Sagarrakozko zukua.
- **Laranja erdia.** Mostoa.
- **Musutxoak.** Lakasitxoak.

# San Fermin Torneoa, Barriola eta Xalarentzat

**Pilota»** 22-19 irabazi zieten herenegun Labrit pilotalekuan Olaizola II.ari eta Belokiri, oso berdinduta joan zen partidari.

**N. GARZIA**

Xala eta Barriolak udako lehenengo torneo irabazi dute, San Fermin Torneoa, hain zuzen ere. Herenegun jokatu zuten norgehiogoka Labrit pilotalekuan, eta Olaizola II.aren eta Belokiren aurka aritu ziren.

Partidak 75 minutuko iraupena izan zuen eta parekatu xamar joan zen arren, Aspeko bikoteak lortu zuen azkenean garaipena, 22-19ko emaitzarekin.



Barriolari ezinhobeto joan zaio San Fermin Torneoan. M. RAMIREZ / ARGAZKI PRESS


Xala eta Barriola oso gogor hasi ziren, Xala nabarmendu zelarik. Partidan 4 pilotariet maila ona erakutsi zuten eta Aspeko bikotea

atzetik zihoala Barriolari esker berdinketa lortu zuten (14-14), aurretik 9-14 galtzen baitzihoazten. Hamaseigarren tantoan ere ber-

dinketa lortu zuten eta hortik aurrera Barriola eta Xala aurretik jarri ziren, finala irabazi arte.

Herenegun jokaturako finala

eta gero, beraz, Barriolari ezinhobeto joan zaio San Fermin Torneoan, bai binakakoan bai binakakoan txapela lortu baitu.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



23°  
16°

GOIZA OSTARTEAK  
ARRATS.OSTARTEAK  
BEROENA 20°  
HOTZENA 15°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**

eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Jaiak

■ **Alegia.** Karmen jaiak, egitaraua: 09:00etan, herriko txistularien eta trikitilarien diana; 09:30ean, Giroarte dultzaina taldearen diana; 11:15ean, meza nagusia; 12:30ean, Alegiako dantzarien emanaldia plazan eta Los Incansables txaranga; 16:30ean, 7e pasa Pilota Txapelketaren finalak; 17:30ean, konpartsa herrikoia; 22:30ean, konpartsa herrikoia emanaldia plazan.  
■ **Ibarra.** San Bartolome jaietako danborradarako entsegua Belabietako kiroldegian 20:00etatik aurrera.

### Deialdiak

■ **Tolosa.** Piraguisimo ikastaroak antolatuta ditu Kaxkardi Kultur Elkarteak Txaraman, egun bateko irteerak edo aste osoko ikastaroak. Izen-ematea, 636 638635 eta 677 488910 telefonoetan. 8 urtetik gorakoentzat. Iraila bitarte.

### Kirolak

■ **Tolosa.** Pirinioetara mendi irteera antolatuta du Alpino Uzturre elkarteak, hilaren 25etik 27ra, Palas (2.974 m) eta Lurien (2.826 m) mendiak igoz. Izen-ematea, elkarrean bertan.

### Erakusketak

■ **Alegia.** Mari Karmen Ezeiza artistaren artelanak ikusgai daude jubilatuen tabernan. Lore eta hosto lehorrez osatutako 30 collage dira.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 672438.  
■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

# Eguzkiaz gozatzeko gunea, beteta

**Tolosa** » Pasa den astean inauguratu zuten Usabalgo gunea arrakasta izaten ari da, eguraldi onaren etorrerarekin batera.

### ERREDAKZIOA

Inauguratu berri eta dagoeneko ezinbesteko gune bilakatu da Usabalgo bazkideentzat. Eguzkia hartzeko gune berria, eguzkiaren etorrerarekin batera, toperaino baten atzokoan.

Usabalgo eraikinaren atzealdean dago kokatuta eta 3.800 metro inguru neurtzen ditu. Bertan, hainbat berrikuntza eta aukera daude aisirako eta, dirudenez, oso erakargarriak suertatu dira erabiltzaileentzat. Bereziki, haurrei zuzenduriko urrezko jolaslekuak arrakasta handia izaten ari da, baita gunearen baitan ezarri duten liburutegi zerbitzua. Guztia gutxi da udako egun gozo hauetaz gozatzeko. Berandu agian, baina iritsi da gurera ere...



Jendeak gustura hartu du gune berria; atzo beteta zegoen, eguraldi ona zela eta. N. LATABURU

## A Agurrak



### Urte askoan!

**Enaitz Artola (Alegia).** Zorionak! Gaur 3 urte. Etxekoan partetik ondo-ondo pasa!

agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak



# hitza

elastiko berriak salgai  
haur, gazte eta helduentzat



Harpidedunentzat  
**%25**  
merkeago

Tolosako  
HITZAren  
bulegoan  
eskuragarri.

elastikoarekin  
**poltsa opari!**

